

2014an, informazioaren teknologiak darabiltzaten 10 langile edo gehiagoko enpresa-portzentajea Debagoiena nabarmentzen da

Euskal AEn webgunea dutenen %47,2k euskaraz ere badu; Gipuzkoan %61,1ek

Eustaten datuen arabera, 2014an Euskal AEn 10 langile edo gehiagoko enpresak IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) ekipamenduetan ondo hornituta daude, bereziki Debagoienan, merkataritza elektronikoaren erabilera izan ezik.

Arabako Mendialdean eta Enkarterrietan eta Markina-Ondarroan Bizkaian, tamaina horretako enpresen %100ek badute **Internet**. Gipuzkoan Tolosaldea nabarmentzen da, %99,6.

Internet baduten 10 langile edo gehiagoko enpresak, **herri-administrazioekin izapide elektronikoak** egiten dituztenak, %99,5 dira Markina-Ondarroan, Bizkaian; %96,8 Arabako Mendialdean; eta Debagoienan eta Goierrin, Gipuzkoan, %95,3.

Web orria dute Debagoienako %93,4k, Gipuzkoan; Kantauri Arabarrean %89,1ek eta Bilbo Handian %87,3k.

Sare informatikoak: Enkarterriak (%100), Bizkaian; Arabako Ibarrek eta Gorbeia inguruak, Araban (%98,1); Debagoiena Gipuzkoan (%97,7).

Kode irekidun programak, 10 langile edo gehiagoko enpresetan: Arabako Mendialdean (%94,3); Markina Ondarroan (%89,5) Bizkaian; Debagoienan (%85,1), Gipuzkoan.

Tamaina honetako enpresek zenbateraino darabilten merkataritza elektronikoa (erosketa edo salmentak egiteko) neurtzeko orduan, portzentajeak askoz apalagoak dira: Urola-Kosta Gipuzkoan (%38,0); Markina-Ondarroa Bizkaian (%35,3), Gorbeia Inguruak Araban, %33,0.

Euskararen presentzia euskal enpresen webetan

Euskaraz ere badiren webak batez ere Gipuzkoako enpresetan ditugu. Debagoienan %74,8, Goierrin %68,2; Gipuzkoako gainerako eskualdeetan %56ren gainetik.

Bizkaiko Markina-Ondarroan %59,3; Gernika-Bermeon %58,8.

Arabako Mendialdean %50,0; gainerako eskualdeetan beheraka portzentajea.

10 langile edo gehiagoko enpresetako IKT ekipamenduen portzentajeak hiriburuetan oso antzekoak dira. Donostian euskarazko weben portzentajea handiagoa da.

1 taula: Euskal AEko IKT ekipamenduak, 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan, hiriburu eta eskualdeen arabera (%). 2014

	Internet		Web orria		Sare informatikoak	Kode irekidun programak	Merkataritza elektronikoa (3)
	Konexioarekin	Administrazioarekin izapideak egiten ditu (1)	Badute	Euskaraz (2)			
EUSKAL AE	98,4	92,1	86,3	47,2	93,3	80,1	27,5
Vitoria - Gasteiz	98,1	90,7	86,0	38,0	93,3	78,6	23,7
Bilbao	98,3	89,8	86,4	44,7	96,2	83,3	27,8
Donostia - San Sebastian	96,9	93,5	88,5	64,7	96,6	78,2	31,2
ARABA/ÁLAVA	97,7	91,2	85,3	36,7	92,0	78,1	23,9
Arabako Ibarak / Valles Alaveses	99,8	92,0	84,3	23,7	98,1	81,0	14,5
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	97,9	90,7	86,0	37,8	93,0	78,0	23,2
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	100,0	96,8	71,1	50,0	97,8	94,3	21,7
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	96,6	92,2	80,8	35,4	88,5	85,2	24,0
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	100,0	92,6	81,6	31,2	98,1	87,0	33,0
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	98,2	93,4	89,1	33,0	95,7	80,9	28,4
BIZKAIA	97,4	91,8	86,0	41,0	93,8	82,1	26,7
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	96,1	98,3	82,0	32,8	95,8	83,9	16,1
Bilbo Handia / Gran Bilbao	97,7	90,6	87,3	40,4	95,7	83,8	27,5
Durungaldea / Duranguesado	96,9	95,5	83,0	39,6	96,6	80,4	25,7
Enkartzioak / Encartaciones	100,0	98,1	87,0	39,9	100,0	76,8	5,5
Gernika-Bermeo	99,9	97,7	85,1	58,8	91,9	88,7	29,9
Markina-Ondarroa	100,0	99,5	67,5	59,3	92,2	89,5	35,3
Plentzia-Mungia	97,1	93,3	81,4	46,4	85,1	83,3	24,4
GIPUZKOA	97,4	92,9	87,1	61,1	93,2	78,1	30,3
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	98,1	85,8	85,6	56,3	93,9	81,4	21,1
Deba Beherea / Bajo Deba	99,5	92,4	89,2	58,8	92,2	84,7	33,0
Deba Garaia / Alto Deba	96,7	95,3	93,4	74,8	97,7	85,1	34,2
Donostialdea	97,2	93,8	86,2	59,1	95,7	77,8	29,2
Goierrri	97,4	95,3	87,6	68,2	94,7	82,0	26,5
Tolosaldea / Tolosa	99,6	91,6	91,9	59,3	91,0	73,5	35,3
Urola-Kostaldea / Urola Costa	96,2	92,8	82,5	58,9	90,5	76,6	38,0

(1) Internet baduten establezimenduen artean, administrazioekin elektronikoki elkarreragiten dutenen portzentajea

(2) Web baduten establezimenduen artean, euskaraz baduteneen portzentajea

(3) Merkataritza Elektronikoen datuak 2013ko abenduaren 31koak dira

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Enpresak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); datu-bankua